

ZIENTZI ETA KULTUR KONTSEILARIAREN TXOSTENA

Pedro Miguel Etxenike

Manuel Lekuona, jaun agurgarria —agurgarririk bada— ez ote da nereia beranduegiko txanda, dagoeneko esan etzaizunik esan dezaizudan? Kardaberaz Bazkunak orain zazpi urte eskeini zizun omenaldian esatekorik gelditu bazen, atzo ta gaur jardun zaizkizunek hor nonbait azalduko zuten. Zertan ote natorkizu bada, ia dena esana badago? Zer dizut esatekorik?

Badakit, Orixe zenak hain jator idatzi zuenez, “*erabateko gauzak ondo esatea ..., nornairen mende ez dagoela*”. Behar bezain txukun eta ongi azalduko ez baditut ere, ezin geldi naiteke gaurko egun hontan honako hauek jendaurrean zuri esan gabe:

1. Lehenik, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskalerriaren eskerrona agertzen dizut guzien aurrean. Eta esango dizut zergatik. Ni ez nauzu nor zure ikerlanen haundia neurtzeko eta epaitzeko, zuk aztertu gaietan ezjakina nauzulako. Jaurlaritza ere ez da gai horretarako. Herria bera ere ez. Zure lanaren handia, ikasiek goraiapatu digute, ikerketari beharrezkoa zaion kritika eta guzti. Baina alderdi berezi hoi en ganetik, badu Eusko Jaurlaritzak Euskalerriaren izenean zuri eskerrak emateko ziorik. Gure herriak bere burua hobeto ezagutu dezan egin duzun lan ikaragarria, nahiz-eta giro eta inguru gaiztoenetan gertatu zeure bizitzako zenbait unetan. Zure lagun haundi bati aitortu zenionez, “*Lan egin nai duanarentzat, garai guztiak onak dira..., jarrai lanari! / Besteak beste, etorkizuna ez dago-ta inoren eskutan...*” (1). Zuk esan zenezakeen horrelakorik, gordeta, ihesika, atzerriaturik gertatu arren, atertu gabe lanean jardun zenuen horrek. Zuk esanari zerbait erantsi behar bagenioke hau xe litzateke... Eta etorkizuna gizon-emakumeon esku dagoen neurrian, lana gogotik eta ondo egiten dutenen esku egon ohi dela.

(1) Goñi-tar Joseba: *Don Manuel Lekuonaren omenez*, in: Lekuona-tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma I, Kardaberaz Bilduma 19, Gasteiz 1977, 176.

Eskerrik asko, beraz, Oyarzungo Lekuona Manuel jauna, giroak giro, era-soak eraso, nekeak neke, beti aurkitu duzulako gure herrikoak aztertze-ko eta lantzeko egokiera eta beta. Eskerrik asko, zure lankide batek aitortu zigunez, etengabeko lan hoietan “beti paketsu, beti neurritsu, beti orduko, zeure goxoa eta zeure grazian, ingurukoen lanarentzat eskertsu eta besten iritzietara idekia” izan zeralako (2). Eskerrik asko, Euskal Pizkundearen zain ez baina, beti ere euskeraren eta euskaldungoaren piztaileetakoa izan zaitugulako. Aitormen hau zor dizu gure herriak eta zor hori jendaurrean aitortzea merezi baino gehiagoko ohorea gertatu da neretzako.

2. Bigarrenez —eta azkenik, ez baitut nere erruz gure jardunaldi hau neurritz gain luzatu nahi— inoiz azaldu izan dudan kezka bat azaldu nahi nizuke.

Gaur egun eta geroenean geure euskaldungoa —batez ere zuk hainbat maitatu ezezik landu duzun euskera— galdu nahi ez dugunok, dudarik ez da, aukera berriak dituguna. Baina, kezkatu nabil ez ote dugun behar bezala erabiliko eskaintzen zaigun aukera. Beldurrik badut, ez ote dugun errazegi uste izango, hemendik aurrera agintaritzaren eta ardularitza edo administrazioaren esku dagoela gure herriaren etorkizuna. Uste horretan ereriko bagina, usteldurik genuke dagoeneko emaitza. Eta zure aurrean azaldu nahi dut kezka hau, zurea ere badelakoan eta zuretzat asma dezakegun omenaldirik bikainena, hain zuzen, kezka hori geure egunoroko lanaren bidez uxatzea delakoan. Nere aldetik, zure bizitza eredu hartuko dudala esanaz egin nahi dizut ornen. Badakizu gure herriak hasi berria duen ekitaldi berri honetan, gure eskuko herrigintzan aurrerapenik egiten ari gerala. Zuk hainbat landu dituzun kultur sailak ere ari gera zerbait indartzen. Baina ez dugu bururik jasoko, ez gara euskaldun eta Euskalerra izango bertako seme-alabok, zure jokabideari jarraituz, geuk beste inork egin ez dezakeen lana egiten, ez badugu. Beharrezkoa baitu gure herriak bere eskuko Jaurlaritza, beharrezkoak dirua eta legebidea... baina zertarako lituzke guzi hoiek izangogoa galduko balu? Zertarako dira aukera, erabiliko duenik ez badago? Horrelakorik gertatzea baino hobe genuke, zu bezala, edozein aldartetan aukera berriak sortu eta erabiltzen jakiate.

Beraz, zuri eskerrak eman eta ornen egiteko Jaurlaritzaren izenean honako hau baino egokiagorik ez dut eskeintzeko: gure hitza damaizugu Lekuona jauna, herri honek bere burua jasotzeko eta nor izateko aukera guziak izan ditzan arte ez dugula etsiko. Gureak eta bi joko ditugula, gure Euskalerra hontan euskeraz bizi nahi duenak, bere asmoak egi bihurtzeko aukera guziak izan ditzan arte. Eta gure herriak ere ornen egingo dizula sinisten dugu sortzen zaizkigun aukera berriak zuhur eta egoki erabiliz.

(2) Joxe Mari Aranalde: *D. Manuel, jaun fina da*, in: Lekuona'tar Manuel Jaunaren ome-
nezko idazki-bilduma III, Kardaberaz Bazkuna 21, Gasteiz 1977, 42.